



■ ASTIGARRAGA-HERNANI

Tailer bana doan, energia aurrezten ikasteko

Azken eguna da gaurkoa, Astigarragan ostegunean emango den tailerrean izena emateko. Hernanin, hilaren 11n emango da tailerra, eta ostiralera arte eman daiteke izena.

LEHENAGO beste tailer edo ikastaro batzuen bidez egin den bezala, Gipuzkoako Foru Aldundia tailerrak antolatzen ari da Gipuzkoa Argitu programaren barruan, herritarrei etxean energia aurrezten erakusteko. Horietako bat emango du Astigarragan, ostegunean, eta gaur bukatuko da izena emateko epea, debalde bada ere. Hernanin, datoren astean emango da. /2

Pausoz pauso, gizarte barneratzaileago batera bidean

Kirol inklusiboetan aritu ziren joan den asteazkenean, Hernani Errugbi Elkarteak antolatutako jardunaldietan; eta borobiltzeko, Inklusibo Txapelketa jokatu da larunbatean. Eta ostegunetik aurrera, Garagardo Azoka. /4



■ HERNANI

Mendekoste jaiak, ate joka

Ostiralean hasiko dira Florida-Etxeberri auzoko festak. Ostegunera bitartean, haur eta helduen danborradetan ateratzeko azken entsaioak egingo dituzte. /3

■ HERNANI

CCOOk deituta kontzentrazioa, papergintzan

Gipuzkoako Papergintzako lan hitzarmenaren egoera salatu eta «negoziazioa bizkortzeko» eskatzeko, kontzentrazioa deitu du CCOO sindikatuak gaur, 11:00etan Adegin. /2

■ ASTIGARRAGA

Jakoba Errekondo gaur, herri baratzetan

Herritarren zalantzak argitu eta Landareak Lantzen agenda aurkezteko, herri baratzetan izango da gaur Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista usurbildarra. Landareak landatzearen inguruko aholkuak emango ditu, besteak beste. /7

GAUR KRONIKAN

Urumea /2-3

Gaztelekua, txistulariak, Jasota Bezala, laburrak...

Kirolak /4-8

Errugbi barneratzailea eta Garagardo Azoka, Hernani Kirol Saria, Esku pelota eta palako Herriarteko txapelketa, txirrindularitza, atletismoa, boleibola, futbola...



■ ASTIGARRAGA-HERNANI GIPUZKOA ARGITU

Etxean energia aurrezteko tailer bana, Aldundiaren eskutik

Astigarragan ostegunean emango da, 18:30etan udaletxean, eta gaur bukatuko da izen-ematea. Hernanin, hilaren 11n emango da, 18:00etan Biterin, eta ostiralera arte eman daiteke izena. Biak doan izango dira.

GIPUZKOA Argitu programaren bueltan, hainbat tailer antolatzen ari da Gipuzkoako Aldundia herriz herri, herritarrei gomendioak emateko, etxebizitzetako energia kontsumoen inguruan. Horietako batzuk Astigarragan eta Hernanin emango dira, debalde, datozen egunetan, baina izena eman behar da aurretik.

Energia eta dirua aurrezteko gomendioen berri, tailerretan

Lehendik ere eman dira antzeko tailerrak; adibidez, etxeko argindar kontsumoaren inguruan edo erosotasunik galdu gabe energia aurreztearen inguruan. Udazkenean ere egingo da beste bat, energia berriztagarrien bueltan.

Oraingo tailer hau ere energia aurrezteko gomendioen ingurukoa da, baina horretarako etxean egin daitezkeen aldaketak izango dira kontuan: nola hobetu isolamenduak edo hermetikotasunak, nola egokitu aireztapen edo bestelako instalakuntza sistemak... Horrekin, energia, eta beraz, dirua aurrezte

izango da helburua, eta era berean, «osasunean irabaztea»; izan ere, «hezetasunak kontrolatuko dira, kondentsazioak saihestuz, eta, ondorioz, patologiak ekidinez».

Doan, baina izena emanda

Tailerrak doan badira ere, lehendik izena eman behar da. Astigarragan, gaur bukatuko

da izen-ematea: it.ingurugiro@astigarraga.eus edo 943 33 52 41. Tailerra ostegunean emango da, 18:30etan hasita, udaletxean.

Hernanin, berriz, ostiralera arte eman ahal izango da izena oihane@izadi21.eus helbidean edo 686 427 565 telefonoan; tailerra hilaren 11n emango da, 18:00etan Biterin. ■

■ HERNANI CCOO SINDIKATUA

Protesta, Gipuzkoako Papergintzako lan hitzarmenaren egoera salatzen

Goizeko 11:00etan ADEGIren aurrean kontzentrazioa egiteko deia egin du gaurko, CCOO sindikatuak, «negoziazioa bizkortzeko».

GIPUZKOA Papergintza enpresak «lehiakortasun eta egoera ekonomiko ezinhobea bizi duten arren, lehendik dauden lan hitzarmenetakoak baino baldintza bajuagoak, edo egungo errealitateari dagozkionak baino bajuagoak eskaintzen» dituztela salatu du CCOO sindikatuak. Hori horrela, «negoziazioa

bizkortzeko» kontzentrazioa egingo du gaur, 11:00etan, ADEGIren aurrean.

Sindikatuaren ustez, «lau urteko hitzarmena eskaintzen dute, soldata igoerak KPIa (IPC) baino zertxobait altuagoak dituen, lanaldi murrizketarik eskaini gabe, ez eta lege orokorrrak eskatzen dituen lan gai-

xotasunetarako estaldura gehiago ere, edo errelebotako kontratuen berrikuntza begiratu gabe ere».

Era berean, «langileak gasetu eta lanera ez agertzeak konpontzea nahi izanda, konponbideak ez bilatzea ulergaitza» dela iritzi dio CCOO sindikatuak. ■

☞ JASOTA BEZALA

✓ Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa ✓ Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira ✓ Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu ✓ Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak.

1.252 esker PNVtik

Pasa den maiatzaren 26ko hauteskundeetako emaitzak gazi-goza izan dira. Boto gehiago lortu dugu, baina ez dira nahikoak izan herria gobernatzen jarraitzeko eta martxan dauzkagun proiektuak bukatzeko.

EAJ-PNV udal batzarretik eskerrak eman nahi dizkiogu 4 urte hauetan Astigarragaren alde lan egin duen zinegotzi taldeari. Gure lanari esker Atezk Atekoa kendu genuen. Beste batzuek alde batera utzi zuten Kultur Etxe berriaren proiektuari berriro heldu genion, eta laster izango da martxan. Eusko Jaurlaritzak ikastola haunditzea onartzea lortu dugu, herriarentzako kosturik sortu gabe. Astigarraga mapan jarri dugu Astigarragaren bihotzean, Santiagomendin hasi

den udal estrategia iraunkorren esker.

Gure kudeaketari esker hiru haur parke estali eta berriro dira. Kaleak konponduta daude, zuhaitzak kimatuta, fatxadak pankartarik gabe. Gure lanari esker ariketa egiteko elementuak daude herrian, eta txakurrentzako parkeak. Ibai parkea irekita dago eta Urumea hazten denean hau xukatzeko balio du.

Eta ez ditugu ahaztu herriko elkarteak, irisgarritasuna; bai Arroitxulon, igogailuaren proiektu konplexua martxan jarrita, bai Anuskan ere, zeinak laster sarbide hobetua eta parke hobetua izango dituen. Astigarraga sendotu dugu sagardoaren lurraldeko estrategiaren buru moduan, eta laster sagardoaren museo nazional berria izango da. Eta azkenik, Asti-

garragan iraultza eragin dugu aldiriko tren bertara ekarrita, gure alderdiak Madrilin egingako kudeaketari esker.

Eskerrik asko, taldeari. Eskerrik asko korrontearen kontra arraun egin eta gure herriarentzako hainbeste lortzeagatik.

Eta azkenik, eskerrik asko bihotzez gure proiektuan sinestuta dituen 1.252 lagunei. Astigarragako PNVk lanean segiko du gure herria hobea izan dadin, eta denontzako herria izan dadin. Hemendik lau urterako lortuko ditugu Astigarragan gobernatzen jarraitzeko falta izan zaizkigun 150 botoak. Denon artean lortuko dugu. Birtartean, jarrai dezagu lanean.

Felix Zusberro Alberdi,
Astigarragako EAJ-PNVko
udal batzarreko presidentea

■ HERNANI UDALA

Musika Eskolako zuzendaritza, Plenoan

Ez ohiko Plenoa deitu da gaur, 19:00etan udaletxean, eta lau gai landuko dira: maiatzeko dekretuak, 2018ko udal kontu orokorren azalpena, udal ondasunen inbentarioa, eta 'Hernani' Musika Eskola Publikoko zuzendaritza taldea berritzeko proposamena. ■

■ HERNANI ODOL EMAILEAK

Odola emateko aukera, anbulatorioan

Hilero bezala, gaur, hileko aurreneko asteartearrekin, odola eman edota organo donante egiteko aukera izango da anbulatorioan. Maiatzean 42 lagunek eman zuten odola; horietatik 4 emaile berriak izan ziren. Organo donante, berriz, 3 lagun egin ziren. Arratsaldeko 18:00etatik 20:30etara ariko dira erizain boluntario eta laguntzaileak odola ateratzen. Baina gogorazi dute, aukera badagoela lehenago joan eta txanda hartzeko, gero, odola ematera joatean, luzaroan zain egon behar ez izateko. ■

■ EREÑOTZU SAN ANTONIOAK

Herri afarirako txartelak, salgai

Gertu dira Ereñotzuko San Antonio jaiak. Ekainaren 13tik 16ra egingo dira, nahiz eta ostiral honetan, hilak 7, motorrak berotzen hasteko XXXIV. Mus Txapelketa egingo den Ur-Mia elkartearen. Era berean, ekainaren 14an 21:00etan frontoian egingo den herri afarirako txartelak jarri dituzte salgai. Irrintzi tabernan erosi ahal izango dira, ekainaren 9ra arte. ■

■ HERNANI LITERATURA

Serranoren 'Erlojugilea' liburuz, gaur

Ane Mayozen gidatutako literatur solasaldia egingo da gaur liburategian, 19:30etan hasita. Oraingoa, Asier Serrano idazlearen *Erlojugilea* liburua izango da hizketagaia. ■

■ HERNANI SANTA BARBARA

San Joanetako danborradarako, entsaioa

Ekainaren 23an eta 24an hurrenez hurren helduek eta haurrek egingo duten danborradetan ateratzeko, gaur hasiko dira entsaioak, Santa Barbara elkartearen. Astearte, asteazken eta ostegunetan egingo dira, 19:00etatik 20:00etara. Era berean, jakinarazi dute hala behar izanez gero, haurrentzako jantziak utziko dituztela; danbor joleenak badaude, 2014a baino lehen jaiotakoentzat, eta sukaldari eta kantinerenak ere bai, 2016a baino lehen jaiotakoentzat. Gogorazi dute, bestalde, hauren danborradan parte hartzeko gutxienez bost urte eduki behar direla. ■

■ HERNANI MENDEKOSTE JAIK

Danborrak prest, Mendekosteko jaien erritmora astintzeko

Ostiralean hasiko dira Florida-Etxeberriko Mendekoste jaiak. Danborradarako azken entsaioak egingo dira ostegunera arte.

ENTZUN daitezke, dagoeneko, Mendekoste jaietan protagonismo berezia hartzen duten danbor hotsak. Ostiraletik igandera ospatuko dituzte Florida-Etxeberrin auzoko festak, eta bai haur eta baita helduen danborradetan ateratzeko ere, azken entsaioak egingo dituzte ostegunera bitartean, 18:30etatik 19:30etara.

Gainontzean, ostiralean hasiko dira festak, 18:00etan, auzoko merkatarien omenez botako den txupinazoarekin. Gero, buruhaundiak ibiliko dira, puzgarriak irekiko dira, eta helduen danborrada aterako da. Asteburu osoan luzatuko da gero, festa giroa. ■



Ostiralean helduak aterako dira danborradan; igandean, haurrak.

MENDEKOSTE JAIK

OSTIRALA

18:00, Jaien hasierako txupinazoa auzoko merkatarien omenez, frontoian.
18:30, Buruhaundiak auzoko kaleetan barrena.
19:00, Puzgarriak, haurrentzako parkea.
23:00, Helduen danborrada.

LARUNBATA

10:00, Sagardo Bowl txapelketaren hasiera.
11:00, Haurrentzako tailerrak.

11:30, Jubilatuentzako jolas ezagunak eta luntxa.

12:00, Apar festa.
12:30, Patata tortila txapelketa.
14:30, Paella jate herrikoia Etxeberriko frontoian.
15:30, Mus Txapelketa, Etxeberriko elkarteak antolatuta.
16:30, Kirol jolasak 4-15 urtekoentzat, Denontzat gimnasioak antolatuta.
18:00, Haurrentzako txokolata jatea.
19:00, Marsel Magoa, frontoian.
20:00, Sagardo Bowl Txapelketaren bukaera.

20:00, Bingo herrikoia.
21:00-00:30, Disko festa.
23:00, Zezensuzkoa.

IGANDEA

11:00, Meza Nagusia hildakoen omenez.
11:00, Haurren danborrada.
12:30, Sagardo dastaketa txarangarekin batera.
13:00, Errifaren zozketa.
14:30, Jaien amaiera eta azken traka.

■ ASTIGARRAGA HERRI BARATZAK

Landareak zaindu eta landaketak nola egin, Jakoba Errekondorekin

Herri baratzetan izango da, 18:30etan. Landareak Lantzen agenda aurkeztuko du.

ASTIGARRAGAKO Udalak antolatuta, herri baratzetan izango da gaur, 18:30etatik aurrera, Jakoba Errekondo agronomo eta paisajista usurbildarra.

Batetik, herritarrek landareen eta hauek landatzearen inguruan dauzkaten zalantzak eta egiten dizkioten gal-

derak erantzuten saiatuko da, eta bestetik, Landareak Lantzen, 2019ko agenda aurkeztuko du. Agenda honetan argitzen da baratzean, fruitu arboletan, lorategietan edota basoan noiz eta zein lan egin behar diren, sasoi bakoitzari, hilabete bakoitzari eta ilar-gialdiari lotuta. ■

■ HERNANI GAZTELEKUA

San Joanak iritxi arte, dozenaka ekintza

Gaur kamixetak tintatzeko tailerra egingo da. Ekainaren 21ean itxiko da Gaztelekua.

EKAINEKO agendaren berri zabaldu du Gaztelekuak. Dozenaka ekintza antolatu dira hilaren 21a arte, eta, hilaren 22tik aurrera itxita egongo da.

Kamixeta tailerretik, Gazte Sua festara

Gaur eta bihar Tie Dye, kamixetak tintatzeko tailerra egingo da; ostegunean, sukaldaritza osasuntsuari buruzko saioa; ostiralean, terrazako bankua margotzeko tailerra; eta larunbatean, HiSelfie ginakana.

Datorren astean, berriz, astearte eta asteazkenean,

Gaztelekuko sarrerako kartela diseinatzekeo tailerra; ostegunean, dardo txapelketa; ostiralean, Santa Barbarara arratsalde pasa; eta larunbatean, Masterchef.

Azken astean, hilaren 18 eta 19an San Joanetakora poltsa eta kamixetak egiteko tailerra emango da; hilaren 20an, sukaldaritza osasuntsuari buruzko saioa, eta 21ean, Gazte Sua festa, Ave marian.

Astelehen eta igandetan itxita egongo da, eta hilaren 22tik aurrera ere bai. ■

■ HERNANI XALAPARTA

Sukaldea itxita, gaur eta bihar

Konponketa lanak medio, itxita egongo da sukaldea Xalaparta elkarrean, gaur eta bihar. Bestalde, gogorarazi dute ekainaren 15ean omenaldia egingo diotela Aitor Gorrotxategi Iraola pelotari heraniar eta bazkideari, besteak beste, Munduko Pelota Txapelketa delako. Bazkaria egingo da egun horretan, eta izen-ematea irekita dago. ■

■ HERNANI KAXKO ELKARTEA

Buruarinak egiteko tailerra, bihartik

Kaxko elkarteak hiru tailer antolatu ditu, haurrek, heldu batek lagun-duta, buruarinak egiten ikas dezaten. Bihar, eta hilaren 12 eta 19an izango dira saioak, 17:00etatik 19:00etara Biterin, doan. Baina toki muga dago, eta izena eman behar da: 722 680 828 telefonoan edo ipuitantai@gmail.com helbidean. ■



Leokadisti txistulari taldeak Malen Morcillo eta Garazi Urdangarin dultzaineroak izan zituen lagun.

■ HERNANI LEOKADISTI TXISTULARI TALDEA

San Joanetarako berotzen, txistulariak ere

Ikasturtean zehar ematen dituen kontzertuetan azkenekoa eman zuen igandean, 'Hernani' Musika Eskola Publikoko Leokadisti txistulari taldeak. Baina ez zen izan hauek entzuteko azken aukera; kontzertu bukaeran eman zuten propinarekin argi utzi zuten, hil honetan bertan, San Joanetan, lanean aritzeko prestatzen hasiak direla. Malen Morcillo eta Garazi Urdangarin dultzaineroak lagun, ekainaren 27ko dianan jotzea ohi-tura bihurtu nahi duten pieza jo zuten: *Karkabara sartu gabe*, Iñaki Egurenek sortua. Bideoan, ikusgai. ■

■ HERNANIKO ERRUGBI ELKARTEA

Errugbilariak garagardo artean, gizarte barneratzaileago baten bila

Hernaniarrak Errugbi Elkartera gerturatzeko urteroko zita izango da aste honetan, ostegunetik igandera: XVI. Garagardo Azoka. Ohi bezala, Atsegindegi plazan izango da. Larunbatean, Inklusibo Txapelketa ere izango da.

DENBORALDIA bukatuta, urteroko zitari eutsiko dio Hernaniko Errugbi Elkarteak. Hama-seigarrenez, Garagardo Azoka egingo du ostegunetik igandera bitarte; edatekoa ez ezik, jatekorik ere ez da faltako. Hori guztia, elkarteari laguntza ekonomikoa emateko asmoz.

Ostegunean, inaugurazioa

Lau egunez izango da festa eta giro ederra, beraz, Atsegindegin.

Eta horri guztiari hasiera emateko, ostegunean 18:00etan irekiko dira barrak. Dena den, 19:30etan Juanito Rodriguez presidentek eta Joxe Elosegik, zuzendaritzako kideak denboraldiko balorazioa egingo dute, azokari hasiera emanez.

Inklusibo Txapelketa, larunbat arratsaldean

Baina Atsegindegin bakarrik ez, Landaren ere jarriko dute giro

Zortzi talde ariko dira larunbatean, Errugbi Inklusibo Txapelketan.

ederra larunbatean, errugbilariak. Izan ere, Inklusibo Txapelketa antolatu dute, hirugarren urtez, arratsaldeko 15:00etan hasi eta 19:00ak arte.

Aurten, gainera, sekulako partehartzea izango du torneoak. Euskal Herriko taldeak ez ezik, kanpotik ere etorriko dira beste lau talde. Uni Bilbao eta Getxo bizkaitarrak, Gaztedi arabarra eta Hernani izango dira bertakoak; eta Cullera valentziarra, Almeriako Ura Clan, Toledoko Quijote eta Industrias madrildarra etorriko dira kanpotik.

Guztira, 16 partidu jokatuko

dituzte, 25 minuturo bi partidu. Zortzi partidu jokatu ondoren, 16:40etan taldeko argazkia ateratzeko egingo dute geldialdia, eta 16:50etan ekingo diete partiduei berriro. Bukatzeko, hirugarren denbora egingo dute, 19:30etan; eta sari banaketa eta txapelketa bukaerako ekitaldia, iluntzeko 21:00etan.

Horrekin, bukaera emango diote, inklusioa bultzatzeko antolatutako jardunaldiei. ■



Tiloseta bihurtu zuten, aurreko asteazkenean, kirol inklusiborako plazarik onena. Gurgildun aukietan probatu zuten gaztetxoek, besteak beste, kirol ezberdinak praktikatzen.



Makina bat neska-mutil hurbildu ziren, kirol inklusiboak probatzeko gogoz. Errugbia, saskibaloia, pala... probatu zituzten, besteak beste.

■ HERNANI KIROL SARIA

Azken eguna gaurkoa, kirol saria nori eman bozkatzeko

Hernaniko Kirol Sariak ekainaren 22an banatuko dira, baina gaurkoa da hautagaien artean saridunak zein izango diren bozkatzeko azken eguna. Eguerdiko 12:00etan itxiko da epea.

BESTE urte batez, Hernaniko kirol elkarteek hainbat hautagai proposatu dituzte, urteko Hernani Kirol Saria jasotzeko. Horien artean aukeratu dezakete herritarrek; gaurkoa da botoa emateko azken eguna.

Hiru sari

Sariak hiru ataletan banatuko dira. Batetik, emakumezko kirolari saria banatuko da. Hauen kasuan, Mainer Altuna belar hockeyko jokalariren eta Alazne Egiazabal arraunlariaren artean aukeratu beharko da.

Bigarren atala, gizonezko kirolari sariarena izango da, eta hemen ere, beste bi hautagaien artean aukeratu da: Aitor urkia atleta edo Aitor Gorrotxategi pelotariaren artean.

Azkenik, kirol ibilbideari dagokion saria jasotzeko, hautagai bakarra dago: Jose Manuel Otxotorena futbolaria.

Azken botoak gaur, internet bidez

Atal bakoitzean saria zein hautagairi eman herritarrek erabakiko dute. Baina gaurkoa da botoa emateko azken eguna.

Horretarako, Hernaniko Udaleko Jarduera Fisiko eta Kirol sailaren webgunean sartu: kirola.hernani.eus/eu/hasiera. Era berean, Biteri kultur etxean ere eman daiteke botoa. 16 urtetik gorako edonork parte hartu dezake, gaur eguerdiko 12:00ak arte.

Sari banaketa, hilaren 22an

Botoa emateko epea itxita, hilaren 22ra arte itxoin beharko da, saridunak nortzuk izango diren jakiteko. Sari banaketa Azeri Bila lasterketaren ondoren egingo da, 19:30ak inguruan, Urbieta kalean bertan. ■

Emakumezko kirolari sarirako hautagaiak



Mainer Altuna Lertxundi

Belar hockeyko jokalaria, Real Sociedad taldean; 13 urterekin debutatu zuen. Iberdrolako liga txapelketa izan da, baita Final Four-eko MVP eta pitxitxia ere. Liga Erregularreko bigarren jokalaririk onena izendatu zuten entrenatzaileek; aurreko lehenengo dago, eta ligako fase erregularrean jokalaririk onenari saria ere eman diote. «Banekin Kirol Sariak bazirela, baina ez nuen uste hautatuko nindutenik!», dio pozik. Hala ere, etxekoak «kanpaina egiten» ari direla onartzen du; «Alaznek Kontxako Bandera irabazi du! Meritu handia da!».



Alazne Egiazabal Miguel

Igeriketa eta waterpolo probatu ondoren, arraun mundura egin zuen salto 2014 inguruan, eta Donostiako Arraun Lagunak hiru denboraldi egin ondoren, laugarrenean San Juanera saltoa egin eta Kontxa irabazi zuen, 2018an. San Juan traineruarekin 11 bandera lortu da, eta 8 aldiz izan da titularrak; ordezkoa, beste hirutan. «Lagun batek» esan zion hari ere, hautagaietako bat zela. Ez dauka argi nor irabazi dezakeen, izan ere, «jendearen aukera da», beraz, «edozeinek irabazi dezake, aukera guztiak posible dira».

Gizonezko kirolari sarirako hautagaiak



Aitor Gorrotxategi Iraola

2018an Bartzelonan jokatuak Pelotako Munduko Txapelketa txapelketa izan zen, eskuz binaka, Xabier Sanchorekin. Urtebete lehenago, 2017an, afizionatu mailako bigarren txapelketa garrantzitsuenean, Anleten jokatuak Munduko Kopan ere txapelketa izan zen, eskuz binaka. Gorrotxategi berak azaldutakoaren arabera, «bizilagun baten bitartez jakin nuen hautagai nintzela. Ondoren, kiroldegiko sarreran ikusi nituen gainontzeko hautagaiak». Eta horiek ikusita, ez dauka argi zer gertatuko den: «irekita egongo da. Besteak, kirolari handiak dira: Aitorrek Euskadiko errekorra jarri du; Mainerrek Liga irabazi; eta Alaznek, Kontxakoa eta Liga. Maila handia dute, eta oso gazteak dira!».



Aitor Urkia Perez

Real Sociedad atletismoko mailu jaurtitzailea da. Euskadiko junior mailako errekorra lortu zuen maiatzean, sei kiloko mailuarekin: 68.68 metroko marka. Espainiako mailan bigarren dago, eta horri esker, bi aldiz izan da nazioartean: Portugalen, nazioarteko topaketa, eta Tamperen (Finlandia), junioren mundialean. Bera ere, ezustean harrapatu dute Sariak: «lagun batek esan zidan hautagai nintzela maiatzaren 24ko gauean, eta ez nekien zeren inguruan ari zen hizketan...». Gainontzeko aurkariez dio «haien kiroletan oso onak» direla, eta denboraldi «oso ona» egin dutela. Eta bere kategorian Gorrotxategi irabaziko duela uste du, «pelotaren mundua Hernanin kotizatuagoa dagoelako».

Hernani Saria kirol ibilbideari

Jose Manuel Otxotorena

1970eko hamarkadan Hernanin sortutako Elizatxo futbol taldean hasi zen jokatzeko, ume zela. Gerora, CD Hernanira pasa zen, eta handik, Real Madrilerara. Atezain izan da Real Madrid, Valencia CF, Tenerife, Logroñés, Racing eta Espainiako selekzio taldeetan, eta entrenatzaile, Valencia CF eta Liverpool FC taldeetan; era berean, atezainen prestatzaile, Espainiako selekzioan. Bere ibilbide profesionalean zehar hainbat titulu ere irabazi ditu; besteak beste, hiru Espainiako liga, Kopako liga bat, UEFAko bi kopa eta Zamora trofeoa, 1989an.



■ HERNANI PALA

Herriartekoaren semifinaletan da Hernani

Bueltakoan ere bi partidu irabazi zituzten palista hernaniarrek, Andoainen kontra, eta Azkoitia izango dute kontrario orain, finalaren bila. Garazi Urdangarinek, berriz, txapela jantzi zuen Oiartzungo Txapelketan.

HAUNDIA egin dute palista hernaniarrek, Gipuzkoako Herriarteko Txapelketan: semifinaletan dira dagoeneko, joan den ostiralean Andoain kanporatuta.

Hernaniarrek bi partidu irabazi zituzten etxean, joanekoan Andoainen egin bezala, eta pasea ziurtatu zuten. Primeran ekin zion Iñaki Kerejetak, 20-6 irabazi eta kanporaketa ia erabakita uzteko, buruz burukoan. Eta binakakoan ziurtatu zuten pasea, 20-18 nagusitu baitziren Eneko Lujanbio eta Mikel Manteola. Dena erabakita zegoela jokatu zuen Ander Arandiak, banaka zazpi barruan, eta 16-20 galdu zuen.

Orain, Azkoitia izango dute kontrario hernaniarrek, finaleko txartelaren bila. Azkoitiarrek Anoeta kanporatu dute final laurdenetan, 4-2 emaitzarekin. Hernaniarrek bezala, buruz buruko eta binakako partiduak irabazi dituzte, eta zazpi

barruko biak galdu. Beraz, kanporaketa parekatua espero da.

Garazi Urdangarinek txapela, Oiartzunen

Txapelketa gehiagotan ere aritu dira palista hernaniarrek, asteburuan. Eta txapela bat ere ekarri dute: Oiartzungo txapelketako finala irabazi zuen Garazi Urdangarinek, Nahia Eizmendirekin batera, Agirre eta Erasunen kontra (25-19).

Txapelik gabe geratu ziren, ordea, Joana Tolaretxipi, Maddi Iriondo eta Alaitz Barrenetxea. Euskal Jokoetan, Arabaren kontrako lehia erabakigarria galdu zuten, partidu osoan irabazten joan ondoren, baita zazpi tantoren aldearekin ere. Azkeneko tantoan erabaki zen partidua, arabarren alde (24-25), eta bigarren bukatu dute hernaniarrek.

Trinketean ere izan dituzte hainbat zita, hernaniarrek. Batetik, Espainiako Trinkete Txapelketan, irabazi egin zuten Maider Huizik eta Amaia Araiztegik, Mendillorriren kontra (15-12 eta 15-13), ligaxkako azkeneko partiduan. Asteburu honetan jokatu dute semifinala.

Eta bestetik, Euskal Herrikoan, partidu bana irabazi eta galdu du Hernanik. Errekaleor taldearen kontra, Ariane Arrieta eta Amaia Irazustabarrena aritu ziren, eta 18-30 galdu zuten. Baina aldiz, irabazi egin zioten Societe Nautique taldeari, Huizik eta Araiztegik (30-15).

Beste bi partidu ere jokatu ditu Irazustabarrenak, asteburuan. Open Bizkaia Nazioarteko Torneoan, larruzko paletarekin, irabazi egin zuen Miriam Arri-lagarekin, Isasmendi eta Ruiz de Azuaren kontra (7-8, 8-4, 8-3 eta 8-1). Eta irabazi egin zuen Legorretako jaialdian ere, Arri-lagarekin berriz, Miren Larrarte eta Maddi Mendizabalen kontra (25-20). ■



Garazi Urdangarin, zutik eskuinean, Oiartzunen lortutako txapelarekin.

■ ASTIGARRAGA-HERNANI ESKU PELOTA

Primeran ekin die Astigarragak final laurdenei, baina ia aukerarik gabe geratu da Hernani

Bi partidu irabazi zituzten astigartarrek, biak alde haundiarekin, Zestoaren kontrako joanekoan. Hernanik, ordea, hiru partiduak galdu zituen Azpeitian, iazko txapeldunaren kontra.

OSO bestelako hasiera eman diete Astigarragak eta Hernanik, Herriarteko Txapelketaren final laurdenei. Astigartarrek semifinaletara pasea gertu daukaten bitartean, ia aukerarik gabe geratu dira hernaniarrek.

Etxean jokatu zuen joanekoan Astigarragak, Txomiñenen, Zestoaren kontra. Eta hiru partiduetatik, bi irabazi zituzten; biak ere alde nabarmenarekin, gainera: Ekain eta Eñaut Lizeaga anaiek 22-7 irabazi zuten kadeteetan, eta Harri Loidi eta Jokin Santxez 22-6 gailendu ziren nagusietan. Pena bakarria izango dute, Ganix Urdangari-

nek eta Aimar Mujikak ere aldearekin galdu zutela jubenil mailako partidua (5-22).

Orain, lortutako abantailari eutsi behar diote bueltakoan, ostiralean Zestoan, semifinaletara pasea lortzeko.

Txapeldunaren kontra, erronka zailegia Hernanik

Semifinaletara pase hori, oso urruti daukate hernaniarrek, joaneko partiduak jokatu ondoren. Azpeitian aritu ziren, iazko txapeldunen kontra, eta erronka haundiegia izan zen hernaniarrentzat: hiru partiduak galdu zituzten.

Kadete mailakoan, aurrena, 7-22 galdu zuten Unax Uitzik eta Unai Etxarrik, Egiguren eta Elozegi gehiago izan baitziren, hernaniarrek dena eman arren.

Jubeniletan, berriz, 14-22 nagusitu zitzaizkien Alberdi eta Larrañaga azpeitiarrak, Xabier Salaberria eta Oihan Zugastiri. Partidu haundia jokatu zuen Salaberriak, eta nagusi izan zen aurrean, baina Zugastik ez zuen bere eguna izan, eta pelota asko huts egin zituen.

Nagusietan izan zen partidu ederrena eta berdinduena. Ioritz Arrieta eta Markel Lizeaga aurretik izan ziren marka-



Lizeaga anaiek errestorako prest, Zestoaren kontrako joaneko partiduan.

gailuan, 18garren tantora arte, baina bukaeran eman zioten buelta partiduari, Egiguren eta

Murgiondo azpeitiarrek (19-22). Partidu bereziki ona jokatu zuten Lizeagak eta Murgiondok. ■

■ ASTIGARRAGA-HERNANI TXIRRINDULARITZA

Azparren bigarren Idiazabalen, lehenengoarekin berdinduta

Aurreneko sektorea irabazi zuen, eta erlojupekoan sei segundu galdu zituen; puestometroak Lopezi eman zion garaipena.

ASTEBURU gazi gozoa izan da txirrindulari astigartar eta hernaniarrentzat. Eneko Azparren astigartarra garaipenetik oso gertu geratu zen juniorren Idiazabal sarian. Bi sektoreetan banatua zegoen proba, lehenengoan 53 kilometroko lasterketa bat zuten eta gero 4,6 kilometroko erlojupekoa zuten aurretik.

Enekoitz Azparren ezin hobeto aritu zen lineako sektorean. Ihes egitea lortu zuen Ander Blazquez eta Raul Lopezekin. Helmugara iristea lortu zuten eta esprintean Azparren izan zen azkarrena. Blazquez denbora berean iritsi zen eta Lopezek sei segundu galdu zituen azken metroetan. Ez zen astigartar bakar proban. Telmo Semperenak 14garren bukatu zuen aurreneko sektorea eta Jaime Romero erretiratu egin zen berorendorioz. Ibai Rodriguez hernaniarra berriz hamaiagarren helmugaratu zuen.

Erlojupekoan Azparrenek seigarren amaitu zuen eta Lopezek hirugarren egin zuen sei segunduak errekuperatuz. Sailkapen nagusian denbora berdina zuten, baina puestometroak erabaki zuen lasterketa Lopezen alde postu baka-



Azparrenek bigarren amaitu zuen irabazlearen denbora berean.

rraren aldearekin. Mendiko sailkapena irabazi zuen Azparrenek.

Telmo Semperenak 10garren egin zuen erlojupekoan eta sailkapen nagusian 16garren sailkatu zen. Ibai Rodriguez hernaniarra 21garren izan zen erlojuaren kontrakoan, eta 15garren sailkapen orokorrean.

Nafarroako Itzulian, 23 urtez azpikoak eta Zumaian, kadeteak

Elite eta 23 urtez azpikoak

Nafarroako Itzulian korritu zuten. Lasterketa historikoa eta entzutetsua, bost etapaz zegoen osatua eta Jeferson Cepeda ekuatoriarrak irabazi zuen. Urko Semperena erori egin zen bigarren etapan eta utzi egin behar izan zuen. Xabier Mikel Azparren ihesaldietan sartu zen eta sailkapen nagusian 52garren amaituz.

Bestetik, kadeteek ere izan zuten lasterketa Zumaian. Unax Urretabizkaia hernaniarrak 25garren sailkatu zen eta Aner Zilbeti 89garren. ■

■ HERNANI ATLETISMOA



Alba, Santiago eta Olmos, lehenengo hiru sailkatuak.

Ibai Alba hirugarren sailkatu da Errioxako Maratoi Erdian

Prestakuntzarako erabili zuen lasterketa, baina postua egiteko aukera baliatu zuen.

IBAI Alba hernaniarrak hirugarren bukatu zuen, asteburuan, Errioxako Maratoi Erdia. Albak proba entrenamendu bezala erabili zuen, baina lasterketa aurrera joan ahala ongi aurkitu zen eta batez ere beste lasterkarien txakalaldiak ikusita hirugarren postua posible zela ikusi zuen. Maratoi erdiaren bigarren zatia azkarrago egin zuen, erritmo lasaiean atera baitzen.

Beroak kalte handia egin zuten beste korrikalari askori. Seigarren kilometroan seigarren zegoela, aurrekoek erit-

moa jaitsi zutela konturatu zen, eta hirugarren postuaren bila joan zen. Hamaikagarren kilometroan 25 segundura zeukan podiuma, eta azkenean lortu zuen harrapatu, pasa eta postua mantentzea.

Garailea Camilo Raul Santiago izan zen, Jesús Ángel Olmosen aurretik. Beraien denborak 1h07 eta 1h08 izan ziren, Albarena 1h14.

Gainera, distantzia erdiko Errioxako triatloian eman zuen izena bidaiari aprobetxatuz. Espainiako Kopakoa da eta larunbatean ospatuko da. ■

ERRUGBIA		
EMAK. AITZURURANGA (ORON)	Hernani-At.SS./Pingüinos Burgos	22-17
BETERANGAK	Arrasate-Hernani	25-25
BENJAMINAK	Hernani-At.SS.-Bera Bera-Mutriki-Eibar	1-6/1-5/3-2/2-1
FUTBOLA		
NSK. GORENGOA	Hernani-Mutriku	6-2
NSK. KAD. 1GO MAILA	Mundano-Aloña Mendi	0-1
PALA		
TRINK. SAG. ESPAINIARDO TX.	Maidor Huizi-Ariane Arrieta/Mendillorri B	2-0
TRINK. SAG. EHKO TX.	Hernani/Societe Nautique	30-15
TRINK. SAG. EHKO TX.	Hernani/Societe Nautique	18-30
OPEN BIZKAIA	Amala Irazustabarrena-Arriaga/Isasmendi-Ruiz de Azua	3-1
LEGORRETIKO JAIALDIA	Amala Irazustabarrena-Arriaga/Larrarte-Maddi Mendizabal	25-20
QUARTZINGO TX. FINALA	Garazi Urdangarin-Nahia Elzendi/Agirre-Erasun	25-19
EUSKAL JOKOAK IRI	Maddi-Joana-Alaitz/Araba	24-25

HERRIARTEKOA	Hernani-Andoain	2-1
ERREMONTA		
1GO PARTIDUA	Azpiaz-Aizpuru III	30-20
2. PARTIDUA	Erkurra II-Etxeberria III/Juaneña-Ion	40-28
3. PARTIDUA	Seguroa-Larrañaga/Ansa II-Labaka	40-24
4. PARTIDUA	Goikoebea V-Zaldúa/Aldabe-Garces	22-30
ESKU PELOTA		
Astigarraga		
HERRIARTEKOA	Astigarraga-Zestoa	2-1
Hernani		
TRINKETA	Herriaren/Jara-Insauti III	40-25
TRINKETA	Kurene/Oiartzabal-Lasa	40-25
TRINKETA	Pagola-Arizmendi/Pradejon	0-2
NAGUSIAK	Iñigo Urkizu/Tolosa	22-4
KADETEAK	Tolosa/Unai Albeniz	22-10

KADETEAK	Unax Uitzil/Oiarpe	22-8
KADETEAK	Mattin Arzuaga/Behar Zana	12-22
INFANTILAK	Txinburreta-Artola/Tolosa	18-12
INFANTILAK	Elizazu-Alegria/Tolosa	18-7
INFANTILAK	Mattin-Deskarga/Ilupe	17-18
ALEBINAK	Ilupe/Pascual-Azpeitia	16-10
Txapelketa pribatuak		
TXAPELKETA PRIVATUA	Ojuel-Esnaola/Taberna-Odriozola	22-6
TXAPELKETA PRIVATUA	Eskudero-Labaka/Etxezarreta-Insauti	22-8
TXAPELKETA PRIVATUA	Etxeberria-Oinatz Insauti/Tolosa	22-16
TXAPELKETA PRIVATUA	Salaberria-Agirre/Zubeldia-Olano	22-18
TXAPELKETA PRIVATUA	Ojuel-Lizeaga/Zazpi Iturri	22-10
TXAPELKETA PRIVATUA	Azpil-Lizeaga/Yoldi-Zezeaga	22-11
TXAPELKETA PRIVATUA	Xabier Salaberria/Errioxa	6-22
HERRIARTEKOA	Azpeitia-Hernani	3-0

GAUR Giro argia izango dugu bihar ere, goizean bereziki. Goizaldeko behelanoak deseginda, eguzki tarreak zabalduko dira. Baina arratsaldetik aurrera, lainoak ugartuko dira, eta baliteke zaparradaren bat botatzea ere. Orduan, iparraldeko haizea sartuko da. **Min.14° / Max.21°**

BIHAR Okerrera egingo du eguraldiak, eta fronte hotz bat sartuko da goizaldean. Horrela, tenperatura asko jaitsiko da, eta euria ere ekarriko du, bereziki goizean. Arratsaldean, tarteka bakarrik egingo du euria. Iparmendebaldeko haizea ibiliko da. **Min.11° / Max.17°**



TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037 - 948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230 - 699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622 **AUTOBUSAK:** Garayar: 943 556658 **Areizaga:** 943 452708 **Korreo Goizueta-Hernani:** 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** **Castilla** Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** **Gauetz:** **Aldabe** Perkaiztegi, 8 (Antziola, Hernani) **943 336022** **Goizueta:** Nagusia 64 **948 514353**



ASTIGARRAGA FUTBOLA



Mundaroko neska kadeteak, aldageletan, azpitxapeldunaren koparekin.

Galduta ere pozik, bizitakoagatik

0-1 galdu zuen finala Mundarrok, Aloña Mendiren kontra, Zubietan.

ILUSIOZ gainezka joan ziren Zubietara, larunbat arratsaldean, Mundaroko neska kadeteak eta makina bat zale astigartar, harmailak bete zituztenak. Kopako finala zeukaten jokoan, Aloña Mendiren kontra, eta sekulako beroarekin, ezin izan zuten garaipena lortu (0-1).
Baina, hala ere, bizitako guztiagatik eta lortutakoagatik, ederki ospatu zuten bigarren postu hori, astigartar guztiek; irabazi balute bezainbeste, ia.

Partidu berdindua izan zen, eta Aloña Mendiren betetaria eta indarrari, lanarekin, jokorekin eta borrokarekin erantzun zioten astigartarrek. Baina Aloña Mendi aurreratu zen, lehenengo zatian, kontraeraso bati esker. Bigarren zatian, gainera, nekea nabaritu zuten moreek, eta gogotik saiatu arren, ezin izan zuten partidua berdindu.



Jokalari, entrenatzaile eta zaleak, bigarren postua ospatzen zelaian.

Edozein kasutan, «taldearen ibilbide laburrean lortu dutena» goraiatu die Mundarrok, neska kadetei. Hurrengo erronka, Donosti Cup torneo. ||

HERNANI BOLEIBOLA

Ate irekiak bihar eta ostiralean, probatzeko

Entrenamendu saio irekiak egingo dituzte, 2007an edo lehenago jaiotakoentzat.

BOLEIBOL entrenamendu irekiak egingo dituzte aste honetan, Hernaniko kiroldegian. Hernani Kirol Elkarteke boleibol sailak antolatu ditu, neska eta mutilek probatu dezaten.
Atzo egin zuten aurreneko saioa, eta bihar eta ostiralean izango dira beste bi aukera, probatzeko. Egun bakoitzean, bi txanda egingo dituzte.
Arratsaldeko 17:00etan hasita, aurrena, 2006 eta 2007

urteetan jaiotako neska-mutientzat egingo dute saioa. Eta ondoren, 19:00etatik aurrera, 2006 urtea baino lehen jaiotako guztiek izango dute aukera, boleibola ezagutzeko.
Saioak doakoak izango dira, eta helburua da, 2019-2020 denboraldiko taldeetan parte hartu nahi dutenekin harremanak sortzea; baina baita soil-soilik probatu nahi dutenei aukera ematea ere. ||

HERNANI ESKUBALOA



Hernaniko Eskubaloi Eskolako jokalar bat, pase bat ematen, igandean.

Eskubaloia eskolek, festa ederra

Igandean egin zuten, Hernaniko kiroldegian, eskubaloi eskolen topaketa. Eta goiz ederra pasa zuten, eskubaloi taldeetako gaztetxoenek, harmailak bete zituzten zaleekin batera. ||

IRAGARKI MERKEAK

Zerbitzaria eta sukaldaria behar dira Hernaniko taberna batean. C.V.a eta argazkia Bidali: bzhernani@gmail.com
Lokala alokairuan, 1go pisuan. 17m karratukoa, eta komunarekin. Ofizina baterako egokia. Deitu: 943 27 78 51
LANDANET enpresak KOMERTZIALAK behar ditu. Baldintza ezin hobeak: lan-kontratua, soldata finkoa, komisio altuak hilero eta formazioa enpresaren kontu. Bidali cv info@landanet.net edo deitu 943 31 86 06
Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)

HATOR
AHOLKULARITZA
Fiskala, laborala eta Kontabilitatea.
Gure zerbitzuak euskaraz jasotzeko aukera duzu...
MAPFRE ASEGURUAK
Andre kalea 60, Hernani
Tel: 943 55 43 12
hator@euskalnet.net

musika eskola
DOINU-ZALE
KARABEL ALIZOIA, 4 - beheko ezkerrean
AURREMATRIKULAZIOA ZABALIK
ekainaren 14ra arte
943 33 12 33 - 637 85 79 62
IMANOL KAMIO
musika eskola
DOINU ZALE

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA